# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

**JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**4922**

AGINDUA, 2010eko irailaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean, Auzitegiko Medikuen Kidegoan, lanpostu generikoak betetzeko 2010eko maiatzaren 6ko Aginduaren bitartez deitutako lekualdatze-lehiaketa ebazten duena.

Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak lanera sartzeko, lanpostuak hornitzeko eta lanpostuz igotzeko Arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuko 51., 52. eta 53. artikuluekin bat etorriz eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostu generiko hutsak betetzeko, Auzitegiko Medikuen Kidegoarentzat lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko maiatzaren 6ko Aginduaren (ekainaren 16ko BOE eta EHAA) arabera, sail honek honako hau erabaki du:

***Lehenengoa***.– Lekualdatze-lehiaketa ebaztea eta deitutako lanpostuak esleitzea I. eranskinean zerrendaturik ageri diren auzitegiko medikuei.

***Bigarrena*** - Lortutako lanpostuaz jabetzeko epea hiru egun naturalekoa izango da, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun naturalekoa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu, eta hogei egun naturalekoa beste autonomia erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomoa eta Melillako Hiri Autonomoa. Azken kasu horietan epea hilabetekoa izango da, bai irletako nahiz hirietako lanpostua jatorrikoa bada, bai destinoko bada. Plazako esleipendunak bere jabetza hartzearekin batera jarduneko zerbitzura itzultzea lortzen badu, epea hogei egunekoa izango da.

Jabetza hartzeko epe hori lanpostutik kentzen den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen, eta berau lehiaketaren ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan gauzatu beharko da.

Ebazpenak jarduneko egoerara itzultzea badakar, ebazpena argitaratu ondoren hasiko da zenbatzen jabetzeko epea.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**4922**

ORDEN de 20 de septiembre de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se resuelve el concurso de traslado para la provisión de puestos genéricos en el Instituto Vasco de Medicina Legal, para el Cuerpo de Médicos Forenses, convocado por Orden de 6 de mayo de 2010.

De conformidad con lo establecido en los artículos 51, 52 y 53 del Real Decreto 1451/2005, de 7 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Ingreso, Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional del Personal Funcionario al Servicio de la Administración de Justicia, y en la Orden de 6 de mayo de 2010 (BOE y BOPV 16 de junio), por la que se convocaban a concurso de traslado puestos genéricos vacantes en el Instituto Vasco de Medicina Legal, entre los funcionarios del Cuerpo de Médicos Forenses, este Departamento acuerda:

***Primero***.– Resolver el concurso de traslado adjudicando los puestos convocados a los Médicos Forenses que se relacionan en el anexo I.

***Segundo***.– El plazo para tomar posesión del nuevo destino obtenido será de tres días naturales si no implica cambio de localidad del funcionario; ocho días si implica cambio de localidad dentro de la Comunidad Autónoma y veinte días si implica cambio de Comunidad Autónoma, a excepción de la Comunidad Autónoma de Canarias, Comunidad Autónoma de las Illes Balears, Ciudad de Ceuta y de Melilla en que será un mes tanto si el puesto de trabajo es de origen o de destino. Cuando el adjudicatario de plaza obtenga con su toma de posesión el reingreso en el servicio activo el plazo será de veinte días.

El plazo para la toma de posesión empezará a contarse a partir del día siguiente al del cese, que deberá efectuarse dentro de los tres días hábiles siguientes a la publicación de la Resolución del concurso en el Boletín Oficial del Estado.

Si la Resolución comporta reingreso al servicio activo, el plazo de toma de posesión deberá computarse desde dicha publicación.

Lehiaketaz lortutako lanpostuari dagokionez eskumena duen administrazioak ordainduko du lanpostuaz jabetzeko epea.

Interesdunei eman zaizkien baimenak eta lizentziak (oporraldiak barne) bukatzen direnean hasiko da lanpostuaz jabetzeko epeen zenbaketa.

Agindu honek administrazio-bideari bukaera ematen dio eta, aurka egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen arabera administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, Agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean. Bestela, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluek ezarritako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

El plazo posesorio será retribuido por la Administración competente respecto de la plaza obtenida en el concurso.

El cómputo de los plazos posesorios se iniciará cuando finalicen los permisos o licencias, incluidos los de vacaciones, que hayan sido concedidos a los interesados.

Contra la presente Orden, que pone fin a la vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de conformidad con lo establecido en la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del Estado. Todo ello sin perjuicio de la interposición del recurso potestativo de reposición, ante la Excma. Sra. Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a su publicación, conforme lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de septiembre de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

| Esleipenduna<br>*Adjudicatario* | Ordena zk.<br>*N.º orden* | Esleitutako lanpostua<br>*Puesto adjudicado* | Jatorrizko lanpostua<br>*Puesto de origen* |
|---|---|---|---|
| Hidalgo Ocana, Ana Dolores | 144 | Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Bilbao<br>*Instituto Vasco Medicina Legal. Bilbao* | Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Iruña<br>*Instituto Medicina Legal. Pamplona* |
| Villanueva Moraza, Maria Mercedes | 119 | *Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Vitoria-Gasteiz*<br>*Instituto Vasco Medicina Legal. Vitoria-Gasteiz* | Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Bilbao<br>*Instituto Vasco Medicina Legal. Bilbao* |